

NATO

inoiz baino hurbilago



1.

Sarrera

Dokumentu honen helburua NATOk eta mendebaldeko inperialismoak gaur egun duten rolari buruzko analisi bat egitea da. Horretarako, egitura politiko-militarraren historia errepasatu eta Euskal Herriarekin dituen loturak aztertuko ditugu. Izan ere, maiz, mugimendu antiinperialistatik NATOri buruz hitz egiten dugunean, ez dugu gure gertuko errealitatean dituen eraginaren berri ematen, eraso egiten dien herrialdeetako egoerak salatu besterik ez dugu egiten. Baina, kontziente izan behar gara NATOk Euskal Herrian ere eragiten dituela ondorioak eta kalteak.

Dokumentuan zehar, batetik, inperialismoaren inplikazio teorikoak, mendebaldeko inperialismoaren antolaketa politiko-militarraren historia eta helburuak, eta Estatu Batuek nahiz Europar Batasunak NATOren garapenean izandako inplikazioa landuko ditugu. Bestetik, esku hartutako herrialdeetan uzten dituen ondorioak eta eraginak aztertuko ditugu, baita gure herrikoak ere. Amaitzeko, ondorio eta lan-ildo batzuk aurkeztuko ditugu, gure jardun antiinperialista kokatzen laguntzeko.

Hasi aurretik, argi jakinarazi nahi dugu landutako hainbat gairi buruzko datu errealak aurkitzeko zailtasunak izan ditugula. Estatu kideen obskurantismoaren eta estatistika desberdinen ondorioz, errealitatearen gerturapen txiki bat soilik egin ahal izan dugu. Ziur aski, datu errealak hemen aurkeztutakoak baino are odoltsuagoak izango dira. Baina, analisisian sartu baino lehen, hainbat antolakundek eta kolektibok eginiko lanari merezitako aitortena eman nahi diogu, hala nola «Gasteizkoak» kolektiboari. Lan itzel hori gabe, oso zaila bailitzateke NATO zer den eta zer ezkutatzen duen jakitera gerturatzea.

ASKAPENA

Euskal Herrian, 2018ko azaroaren 15a

2.

Inperialismoa, egungo dominazio-fasea

Fase inperialista aztertzen hasteko, lehenik, kapital-metaketaren historiari erreparatu behar diogu. Ekoizpen kapitalistaren markoa hasieratik garatu da nazioartean; hau da, sortzez izan du nazioartea ustiatu beharra. Ezin da ulertu ekoizpen-modu horren sorrera, ezta egungo funtzionamendua ere, mundu mailako testuinguruan kokatu gabe. Ezin dira ulertu XVIII. mende amaieran eta XIX. hasieran industrian lehen jauzi teknologikoak eman ahal izateko beharrezko kapital kopurua metatzeko prozesua eta kapitalaren erreprodukziorako beharrezko den irabazi-tasaren areagotzea, ez badira kontuan hartzen mundu mailako dominazio-harremanak.

Kapitalismoa, indartzen ari zen sektore burges boteretsuaren interesei erantzuten zieten bi oinarritzko mekanismo hertsatzaile indarrean jarri ondoren jarri zen martxan, eta ez gutxiengo boteretsu horrek aurrezteko izan zuen gaitasun zorrotzarengatik eta austeritateagatik, esan ohi diguten moduan. Lehen mekanismoa baliabideak konfiskatzea izan zen, metropoli-tako herri langileei lanerako bitartekoen jabetza masiboki kentzea, alegia. Kapitalismoaren sorrerarako bigarren mekanismo hertsatzailea, berriz, Europako potentziek herrialde periferikoen aberastasunak arpilatzea eta ebastea izan zen. Desjabetzeak merkatuan lan indarra masiboki sartzea erraztu zuen, langileek bizirauteko zuten bitarteko bakarra explotatua izan zedin; eta, arpilatzeak, berriz, makinan kapitalista martxan jartzeko beharrezko

metaketa ahalbidetu zuen.

Kapitalismoaren jatorria lurraldez kanpoko dominazio-harremanetan (indarrez ebatsiz eta arpilatuz) oinarrituta dago, baina, horrez gain, sistema kapitalistaren erreprodukzio-logika bera (esplotazioa eta irabazien maximizazio logika) harraparia eta hedatzailea da. Hau da, kapitalismoa, funtzionalki, mundu mailako proiektu biolentoa da hasieratik, klaseko barne dominazio harremanak eta herrialde inperialisten eta menpeko herrialdeen arteko kanpo dominazio harremanak konbinatuz.

Dominazio harreman horien forma aldatzen joan da, hau da, menpeko herrialdeei aberastasunak ebatsi eta estatu inperialistetara eramateko erabilitako mekanismoak aldatu egin dira denboran zehar. Hasieran, nagusiki politikan eta merkataritzan oinarritzen zen zikloari ekin zion kapitalak (kolonialismoa, kapitalismoaren lehen fasea); gero, merkataritzan eta ekoizpenean oinarritutako matrizea bihurtu zen (inperialismoa, kapitalismoaren fase gorena); eta azkenik, matrizea ekonomiko finantzarioa eta kulturala izatera igaro da (globalizazio neoliberala, inperialismoaren fase gorena). Fase horien kategoria transbertsala izan da arlo militarra.

Hau da, inperialismoaren fase desberdinak bat datoz ekoizpen kapitalistaren garapenaren historiarekin, eta historia horretan, indarkeria politiko zuzena eta gero eta finkatuago eta polarizatuago zegoen merkatuaren funtzio

hertsatzailea konbinatzen joan dira, etengabe. Ekoizpen kapitalistak lurralde sozial berriak konkistatu beharra dauka (merkantilizazio intentsiboa), baita lurralde geografiko berriak ere (merkantilizazio estentsiboa). Beste modu batera esanda, unibertsal bihurtu beharra dauka, erreproduzitzen jarraitu ahal izateko. Zentzu horretan, merkatuak errepre-siboaren bitartez hedatzeko joera berezkoa badu ere, Estatuaren aparatu politiko-militarrak funtzio erabakitzailea bete zuen eta betetzen jarraitzen du, harreman sozioekonomiko horien erreprodukziorako bideratzaile eta berme gisa.

Hala, bai historikoki bai funtzionalki, menpeko herrialdeak inperialismoaren beharren arabera daude kokatuta munduko eskala ekonomikoan. Hau da, sistema kapitalistaren erreprodukzioan paper nagusia dute: baliabide naturalen erreserba, lan indar merkea,... Menpekotasun posizio horrek, korrelatiboki, aberastasun kantitate oso handiak ebastea eta metropoliarekiko menpekotasun harremanak ezartzea dakar, bai ekoizpenari, merkataritzari, finantzari eta kulturari dagokionean, eta ondorioz, herri horien burujabetza eta garapen endogeno zantzu txikiena ere blokeatu egiten da.

Laburbilduz, harreman inperialistak beharrezko dira sistemaren erreprodukzioa bermatzeko (tokian tokiko klase dominatzaileen ardua eta funtzionalitatearekin). Beharrezkoak dira bai herrialde inperialisten eta menpeko herrialdeen arteko zapalkuntza, sakeo eta esplotazio harremanak bai inperialismoaren barneko gatazkak, ebatsitako ondasunak banatzerako orduan. Eta, hori guztia ulertzeko, kontuan hartu behar dira etengabean

etekinen anbizioaren logika klasistari berezko zaion joera hedakorra eta estatu-nazio bakoitzaren errealitatea.

2.2 GLOBALIZAZIO NEOLIBERALA

70eko hamarkadatik aurrera, ultraliberalizazio ekonomikoan eta autoritarismo politikoan oinarritutako metaketa eta dominazio kapitalistaren marko hegemonikoan, sistema kapitalista finkatu egin zen nazioartean, polo politiko, militar eta ideologiko bakarra gailenduta eta indar eragile nagusi gisa AEB zuela. Hain zuzen ere, ekoizpen harreman kapitalistetan egindako berrantolaketak, gauzak birplanteatzea ekarri zuen, bai harreman inperialistei eta dominaziorako modalitateei zegokienean, bai dominazioaren inplementazioan sartuta zeuden aktoreei zegokienean.

Neoliberalismoa mundu mailan errotzearen faktorerik esanguratsuenetako bat da merkantilizazio intentsiboaren eta estentsiboaren konbinaketa. Nahasketa haren bitartez, inperioaren ekintza-eremua kualitatiboki eta kuantitatiboki zabaldu egin zen, irabazien logikatik kanpo egon zitekeen aukera sozial eta geografiko txikienik ere utzi gabe. Menpeko herrialdeak izan ziren dinamika hedakor pribatizatzaileak harrapatu zituen lehenak; laborategi neoliberalaren eskuetan zeuden.

Beste faktore bat da mundu mailako ekonomian sektore finantzarioak indarra hartzearen eraginez, eta zehazki, nazioarteko sistema finantzarioaren hipertrofiaren ondorioz, nazioarteko kapital finantzarioaren zirkulazioaren bolumena, %90 baino gehiago espekulatiboa, eguneko 3.000.000 dolarrera igo zuela, munduko merkataritzan ondasunen

zirkulazioa baino ehun aldiz gehiago.

beldurgarria eskuratu zuelako.

Testuinguru berri hartan, sistema kapitalista inperialistak haren ortodoxia espekulatibo eta pribatizatzailea bermatuko zizkion instituzioak zituen: Nazioarteko Diru Funtza (NDF) eta Munduko Bankua. Haiek ziren periferiako herrialdeei presio egitearen arduradunak, mailegu berriak emateko beharrezkotzat ziztuzten doikuntzak (eskubide murrizketak eta pribatizazioak) egiteko. Bestalde, Gobernu Kanpoko Erakundeetan oinarritutako egituren bitartez, inperialismo europarrak eta yankiak asistentzialismo injerentzista sustatu zuen, pobretutako herri masen atsekabea eragiteko eta sakoneko aldarrikapen politiko nahiz antolakuntza zantzu oro desaktibatzeke.

Azkenik, sistema kapitalistaren ardatz zapaltzaile eta esplotatzailean, mundu mailako bihurtu nahi zuen neoliberalismoaren dimentsio hedakor eta finantziarizatuak areagotu egin zituen desparekotasunak herrialde guztietan, baina, bereziki herrialde inperialisten eta menpeko herrialdeen artean. Burgesien arteko lehiakortasunean oinarritzen den ardatzean, berriz, neoliberalismoak gerraosteko inperialismoaren berezko joera finkatu zuen, potentzia inperialisten arteko gerra-konfrontazio gabeko testuinguru batean garatu zena, periodo klasikoan (XIX. mendean eta XX. mendearen lehen erdian) ez bezala. Fase neoliberalen, mundu mailako bloke dominatzaileen baitan, kontraesanak ez dira lehertzen inperioen arteko gerretan, bi arrazoirengatik: batetik, jatorri nazional desberdinetako (transnazional, multinazional) enpresen arteko asoziazio ekonomiko sendo bat eratu eta indartu zelako; eta bestetik, eragile nagusietako batek, AEBk, gailentasun beliko absolutua eta

Hala, fase inperialista berri honen ardatz esplotatzailearen (merkantilizazioa eta finantziarizazioa) eta lehiakorraren (kapitalen arteko asoziazioa) oinarrian elementu ekonomikoak egon arren, bada beste elementu gako bat, bi ardatz horietan agresibitatea eta kooperazioa ahalbideratzen dituen: militarismo yankia. Aurreko inperialismoen gisan, gaur egungo inperialismoak ere berregin beharra dauka gerraren bitartez. Aurrekoekin alderatuta, aldatu dena gerra horien hartzaileak eta formak dira. Lehen, potentzia handien arteko konfrontazio odoltsuak ziren; egun, burgesien arteko disuasioa eta yankiek koordinatutako inbasio inperialista suntsitzaileak. Gehiegikeria horien magnitudea aldatu egiten da koiuntura desberdinetan, baina gerrazalekeria egiturazkoa da, esplotaziotik eskuratutako etekinen lehia bezala.

2.3 MILITARISMO YANKIA

II. Mundu Gerraren amaieratik, Europar Batasunak, Japoniak eta Estatu Batuek osatutako triada da zentro inperialista, azken hori zentroaren zentro izanik. Baina, Sobietar Batasunaren gainbeheratik eta gerraosteko bipolaritatearen amaitu zenetik, Estatu Batuak da mundu mailako superbote, proiektu neoliberalaren buru.

Hala, zentro horren zentroak botere ikaragarria pilatu du, historian aurrez sekula izan gabeko dimentsioetaraino. Botere hori izatearen arrazoi nagusienetako bat, munduko superpotentzia militar bakarra izatea da; armetan gastatzen duena ia-ia gainontzeko nazio guztiek gastatzen duten adina da. Argi eta garbi

dago, beraz, keynesianismo militarren aldeko apustu irmoa, eta horren adierazle da 128 herrialdetan dituen 750 base eta misio militarrik. Militarizazio gogorraren bitartez Monroe Doktrina mundu osoan zehar zabaltzeko intentzioarekin, “gera prebentiboaren”, “terroismoaren aurkako borrokaren” edota “esku hartze humanitarioaren” diskurtso legitimatua erabiltzen ari da nonahi, bereziki, 2011ko irailaren 11ko atentatuen ostean inposatu zen diskurtsoa, eta bloke inperialistan apenas pitzadurarik izan ez duena.

Baina, nazioarteko instituzioak (NBE, NDF...), Japonia eta Europar Batasuna Estatu Batuen konplexu militar-industrialaren eta gobernuaren lehentasunen mende gelditzen badira ere, ez dago antzekotasunik menpekotasun horren eta menpeko herrialdeek herrialde inperialistekiko duten menpekotasunaren artean. Inperialismoen arteko menpekotasun-egoera bat da, interes estrategiko komunetan oinarritzen dena. Estatu Batuetako jendarmeak nazioartean babesa ematen die gero eta transnazionalago diren klase dominatzaile guztiei.

Bestalde, menpekotasun hori ez da absolutua; izan ere, AEB mundu mailako ekonomian nagusi izan arren hainbat sektoretan (teknologia berrikuntzan) enpresa oso nazioartekotuak dituelako eta munduko sistema finantzario eragileena (dolarra da moneta erreferentea) duelako, AEBk baditu beste faktore batzuk bere aurka: iraganarekin alderatuta, mundu mailako zordun handiena ere bada, merkataritza defizit altua du eta produktibitatean eta lehia industrialean jaitsiera esanguratsua ere izan du. Hau da, Estatu Batuek haren nagusitasun militarri eusten zion gailentasun ekonomiko irmoa galdu dute. Boterearen oinarriak alde-


alderantzikatu egin dira, eta gaur egun, abantaila militarrik beherakada ekonomikoa konpentsatzen du. Estatu Batuen nagusitasunak ez du jada XX. mendearen lehen erdian erakusten zuen izaera absolutu eta integrala. Gaur egun, mundua multipolarra da.

3. NATO, inperialismoaren beso armatua.

Ipar Atlantikoko Itunaren Erakundea (NATO ingelesez, North Atlantic Treaty Organization) nazioarteko gobernuen arteko aliantza militarra da, 1949ko apirilaren 4ean sinatua, Washingtonen, Ipar Atlantikoko Ituna oinarri. Itun haren bitartez, Atlantikoaren bi aldeetako 12 herrialdek elkar defendatzeko konpromisoa hartu zuten haietako norbaiten aurka eraso armaturen bat gertatuz gero, hain zuzen ere Belgikak, Kanadak, Danimarkak, Estatu Batuek, Frantziak, Islandiak, Italiak,

Luxenburgok, Norvegiak, Herbehereek, Portugalak eta Britainia Handiak. Itun hura, 1948an beste bost Europako herrialdek sinatutako Atlantikoko Aliantzaren Itunaren jarraipena izan zen, zehazki Frantziak, Belgikak, Herbehereek, Luxenburgok eta Britainia Handiak. Beraz, NATOren sorrera beste urrats bat izan zen, II. Mundu Gerraren osteko Erdialdeko Europan zegoen tentsio areagotuaren testuinguruan.

Herrialde haiez gain, 1952an Grezia eta Turkia



ere sartu ziren NATOr, eta 1954ko urriaren 23an, Ipar Atlantikoko Kontseiluak Alemania gonbidatu zuen Aliantzara batzera. Alemaniako Errepublika Federala (AEF) 1955eko maiatzaren 6an batu zen, eta gertaera hura izan zen Gerra Hotzaren intentsitatea areagotzearen eragilea. Zortzi egun geroago, 1955eko maiatzaren 14ean, Alemaniako Errepublika Federala NATOn sartu izanari erantzuteko, herrialde batzuk Adiskidetasun, Lankidetzaz eta Elkar Laguntzaren Ituna (Varsoviako Ituna) sinatu zuten. Albania, Bulgaria, Txekoslovakia, Hungaria, Polonia, Alemaniako Errepublika Demokratikoa, Errumania eta Sobietar Batasuna izan ziren herrialde horiek.

1955 eta 1999 artean igaro ziren 44 urteetan NATOn sartu zen herrialde bakarra Espainia izan zen, 1982an. 1989an Berlingo Harresia erori zenean, Varsoviako Ituna bertan behera gelditu zen, 1991n. Baina NATOk jarraitu egin zuen, are gehiago, indartu egin zen Ekialdeko Europako herrialdeekin. 1999 eta 2004 artean, Varsoviako Ituneko hainbat kide ohi (Bulgaria, Txekiako Errepublika, Hungaria, Polonia eta Errumania) Aliantzara batu ziren.

NATOk Jugoslaviako gerran hartu zuen parte lehen aldiz; hain zuzen ere, 1995ean eta 1999an izan ziren ekintza militarrik. Jugoslavian, 1995eko Deliberate Force operazioaren bitartez, 400 hegazkinek eta 5.000 pertsonak interbenitu zuten, lurreko soldaduak eta 15 herrialdetako pilotuak bidaliz eskualdera, 1995eko abuztuaren 30etik irailaren 20ra arte, serbo-bosniarren indarren aurka eraso egiteko. Lau urtera, 1999an, NATOk Jugoslavia bonbardatu zuen Kosovoko gerran zehar Allied Force operazioa eta zalantzarik gabe, NATOk estatu kideen gehiengoaren eta Jugoslaviako

Errepublika Federalaren arteko gerra deklaratu gabea izan zen. Erasoak 1999ko martxoaren 24tik ekainaren 11ra izan ziren. Bonbardaketak NATOk hasi zituen, alde bakarretik, NBEko Segurtasun Kontseiluaren baimenik gabe; beraz, argi esan daiteke gerra-krimenak eragin zituztela.

2001eko irailean, Estatu Batuek sorrera-ituneko 5. artikulua aplikatzeko eskatu zuten lehen aldiz eta haien defentsarako laguntza eskatu zuten. Ordutik aurrera, estatu kideek Estatu Batuekin elkarlanean jarraitu zuten Afganistango eta Irakeko gerretan. Lau aldiz erabili izan da ituneko 4. artikulua, estatu kideei kontsulta egin beharra aurreikusten duena: behin Krimeako gatazkagatik, beste behin Turkiagatik, hirugarren aldiz Irakeko gerragatik, eta, azkenik, Siriako gerrarekin zerikusia zuten erasoengatik.

Gaur egun, NATO 28 herrialdez osatuta dago: Albania, Alemania, Belgika, Bulgaria, Kanada, Txekiako Errepublika, Kroazia, Danimarka, Estatu Batuak, Estonia, Eslovakia, Eslovenia, Espainia, Frantzia, Grezia, Hungaria, Islandia, Italia, Letonia, Lituania, Luxenburgo, Norvegia, Herbehereak, Polonia, Portugal, Britainia Handia, Errumania eta Turkia. NATO bi egitura antolatzen da, egitura zibilean eta egitura militarrean, baina, berez, sorrerako Washingtongo Itunak ez du inolako bereizketarik egiten egitura zibilaren eta egitura militarren artean. Frantziak aldi baterako Aliantzatik mitarki ateratzeko erabakia izan zen bereizketa hori sortu zuena, 1966an.

Nazioarteko egoeraren bilakaerak determinatu du Atlantikoko Aliantzak inguruaren aldaketetara egin beharreko etengabeko

egokitzapenen nolakotasuna. Zehazki, Espainiako Gobernuaren iturrien arabera, gaur egun NATO segurtasun helburuak birplanteatzen ari da, globalizazioaren eraginez eta terrorismoaren espantsioaz kezkatuta, bereziki 2001eko irailaren 11ko atentatuez geroztik. Baina, errealitatea harago doa, eta NATOk dominazio tresna bat izaten jarraitzen du; egungo aberastasun eta baliabide naturalen jabetze eta ebaste estrategien jarraikortasunaren bermea da.

3.1. NATO ETA HAREN ESTRATEGIA BERRITUA

Bloke sozialista erori zen arren, NATO ez da desagertu, are gehiago, bere jardun kriminale-ra kide gehiago batu ditu, eta militarki modu agerian nahiz ezkutuan esku hartzeko guneak ugaritu ditu, legimititate osoa bere gain hartuta. Azken hamarkadetan, bloke kapitalista inperialistak bere mundu mailako hegemonia kolokan jar dezakeen oro zapaltzeko behar duen blindaje politiko-militarra ondo ziurtatu nahian dabil NATO, eta horren adibide ditugu Jugoslavia ohiaren bonbardaketak, 90eko hamarkadan Europako Ekialdeko herrialdeetan kapitalismo basatia errotzeko helburua zutenak, Irakeko eta Afganistango erailketak eta eskualde horretako bitartekoen sakeo masiboa.

Testuinguru horretan gertatzen dira Libiako, Siriako eta Ukrainako azken esku hartzeak. Hain zuzen ere, AEBk eta EBk Errusiaren eta Txinaren aurka martxan jarri duten borroka geopolitiko basatian enklabe estrategikoak diren eskualdeak ezegonkortu eta kontrolatu nahi ditu NATOk, kaosa eta enfrentamendu zibila sustatuz.

2014ko irailean, Galesen, NATOk goi-bileran, suspertzen ari diren potentziak desaktibatu eta geldiarazi ahal izateko estrategia adostu zen. Horretarako, gastu militarra areagotzea eta lehenbailehen zabaltzeko gaitasuna duten indarrak sortzea erabaki zen, eta hori gutxi bultzatuz, Trident Junctione maniobrak egitea adostu zen. 2015 amaieran izan ziren eta, goi-agintari militarren arabera, “1944tik Europan egindako aireko, itsasoko eta lurreko indarren zabaltze handiena izan zen”. Beraz, argi gelditzen da, inperialismoaren beso armatua entrenatzen ari dela eskualdeko ofentsibaren hurrengo urrats estrategikoei erantzun ahal izateko.

Ofentsiba horren baitan daude Estatu Batuek inguruko potentziekin, edo behintzat, Txinaren eragin-eremukoko potentziekin (Singapur, Filipinak, Australia, Hego Korea eta Japonia) sinatutako akordio militarrek eta Ekialde Hurbileko eta Ukrainako erdi isilpeko esku hartzeak. Ukrainaren kasu zehatzean, Estatu kolpe bat antolatu eta neonazi eta ortodoxo neoliberelek osatutako talde bat boterera goratu ostean, Estatu Batuen helburua Errusia militarki setiatzea da, NATO haren mugaraino hedatzeko proiektuari amaiera eman diezaion. Gainera, nahiz eta orain arte Europar Batasunak AEBren planteamenduei zehatz-mehatz jarraitu, Estatu Batuek gauzak horrela jarraitzea nahi dute, eta EBk haiekin lerrokatuta jarraitzen duela ziurtatu. Epe ertainera EBren eta Errusiaren artean egon daiteken edozein motatako harremanak moztu egiten direla bermatzeko lanean ari dira, bai ekonomikoki (Errusia santonatuz) bai militarki (Estonian, Letonian, Lituanian eta Polonian tropak eta armak zabaltuz).

Azkenik, Ekialde Hurbilari dagokionez,

Estatu Batuak, NATOren bitartez, etengabeko ezegonkortze baten (“kaos kontrolatua”) alde ari dira apustu egiten, horretarako eskuragarri dituen bitarteko guztiez baliatuz, historikoki munduko botere politiko eta ekonomikoaren jabe izateko gako izan den eskualde batean barne-tentsioak eta enfrentamendu zibila eragiteko.

3.2 NATO INDARTZEN, PESCOREN SORRERAREKIN

Defentsa arloko Kooperazio Egituratu Iraunkorra (PESCO ingelesez) Europar Batasunaren itunak baimendutako ekimen bat da, estatu kide talde batek segurtasun arloko helburuak, gerrarako materialen erosketak, eta etorkizunean egingo diren defentsarako eta bakearen aldeko operazio bateratuak koordinatzea ahalbidetzen duena. Erakundea Europar Batasuneko 23 herrialdez osatuta dago (guztiak, Erresuma Batua, Danimarka, Malta, Irlanda eta Portugal salbu), baina batu nahi duten estatu kide guztiei irekia da. PESCO ezarri ahal izateko, interesa duten herrialdeek bi baldintza bete behar dituzte aurrez: batetik, modu intentsiboan defentsa gaitasunak garatzea, nazio mailako ekarpenen garapena errazteko, eta bestetik, ekipamendu militarren Europako programa nagusietako indar multinazionaletan eta Europako Defentsa Agentziaren jardunean parte-hartzea.

Hauek dira PESCOra batzen diren estatuek beren gain hartzen dituzten konpromiso nagusietako bi, beste askoren artean: defentsa aurrekontuak aldizka igotzea, adostutako helburuak betetzeko, hala nola ikerketara bideratutako gastuen proportzioa areagotzeko, eta defentsa arloko teknologia garatzea, defentsako guztizko gastuaren %2ra gerturatzeko.

PESCO ezarri izanak “Defentsaren Europa” deritzon proiektua nolakoa den argitzen du behin betiko; izan ere, sekula ez da izango entitate burujabe bat, Atlantikoko koalizioaren interesei erantzungo baitie beti. Baina, PESCO zer den ondo azaltzen duena Jens Stoltenberg da, NATOko idazkari nagusia. Europar Batasunaren Kanpo Harremanen Kontseiluan parte hartzean, Stoltenbergekin, Europako hainbat buruzagik bezala, azpimarratzen du «oso garrantzitsua dela Europaren defentsa NATOrekin ez lehiatzeko moduan garatzea eta, aldiz, haren osagarri izatea».

Errusia inguratzen duten NATO eta AEBko base militararak



Base militararak

Aireko armada



Armada



Itsas armada



1 Afganistan



2 Alemania



3 Saudi Arabia



4 Bahrain



5 Belgika



6 Bosnia-Herzegovina



7 Bulgaria



8 Qatar



9 Hego Korea



10 Espainiar Estatua



11 Estonia



12 Grezia



13 Groenlandia



14 Herbehereak



15 Irak



16 Italia



17 Japonia



18 Kirgizistan



19 Kosovo



20 Kuwait



21 Letonia



22 Lituania



23 Norvegia



24 Polonia



25 Erresuma Batua



26 Errumania



27 Tajikistan



28 Turkmenistan



29 Turkia



4. NATOren ondorioak

4.1. KALTE EKONOMIKOAK ETA EGITURAZKOAK

Gatazka hasi eta bost urtera, Siriaren ekonomiak jasotako kolpeak herrialdearen giza garapena atzeratzea eragin du. Garapenerako Nazio Batuen Programak (PNUD) kalkulaturako zifren arabera, Siriak 203.000 milioi dolarretako galera izan du 2014 amaiera arte, herrialdearen Barne Produktu Gordina lau aldiz, 2010eko prezioak mantenduta. Langabeziak 339 milioi pertsona ingururi eragin dio, alegia, lan indarraren %54,3ri. Gainera, Siriak hezkuntza sistema onenetako bat zuen, alfabetizazio tasa %90ekoa zen, eta ia haur guztiak eskolara joaten ziren. Bost urte baino gehiagoko gatazka armatuaren ostean, 3 milioi haurrek ez dute eskolara joateko aukerarik. Eta osasun sistema kolapsatu egin da, herritarrak ahultasun totalen utzita.

Libia, berriz, Muammar Gaddafiren heriotzatik eta NATOren esku hartzetik 4 urtera, Afrikako per capita diru-sarrera handienak zituen herrialdea izatetik, ekonomia suntsitua izatera pasa zen. Gaur egun, desberdintasun sozialak areagotu egin dira, eta tribuen arteko indarkeria ugaritu. Horrek eta Al Qaedaen nahiz Estatu Islamikoaren presentziak herrialdea estatu gobernaezina eta bideraezina bihurtu dute.

Afganistan da Talibanen erregimenaren gain-beheraz geroztik esku hartu zuten beste herrialde bat, eta 2001etik ekonomikoki atzeratuta aurkitzen da. Gerraren ondorioek, ezegonkortasun politikoen, kudeaketa eta administrazio egoki baten faltak eta atzerriko herrialdeen laguntza ekonomiko ezak, herrialdea ekonomikoki haztea eragotzi dute.

Yemen, Udaberri Arabiarra deitu zitzaion hartan altxatu zen 3. herrialdea izan zen, 2011n, eta 2014tik barne-gatazkei aurre egiten ari da, hutien eta gobernuaren arteko talketan. Enfrentamendu horietan, Saudi Arabiak gidaturako koalizio baten (Oman, Egipto eta Jordaniarekin batera) esku hartzeak eta etengabeko bonbardaketek Yemenen ekonomia suntsitu dute, azpiegiturak txikitu, herrialdea menpekotasun ekonomiko osoan gelditu dadin.

Irak panorama atsekabegarriena duen herrialdeetako bat da. Suntsipen handiko armen aitzakiapean, interbentzio basatia egin zuten yankiek eta haien aliatuek. Herrialdea arabiarren (xiitak vs. suniak) eta kurduen (suniak, gehienak) arteko problema etnikoen asaldatura dago erabat. Gainera, gerra izan zenetik, industria sektorea erabat suntsituta dago, eta hori dena, hein handi batean, zerbitzu elektriko berrezarri ez izanagatik da. Ondorioz, egoera soziala larria da: gazteen langabezia tasa altua da eta bizi-maila hobea lortzeko asmoz profesional onenek emigratu egiten dute.

Ukraina Errusiarekin gatazkan sartu zen Krimako Errepublikagatik, eta haren egoera ekonomikoa kaltetu egin da. Ukrainako Banku Nazionalaren arabera, 2014an, herrialdearen BPG %7,4 jaitsi zen eta, Ukrainako Ekonomia Ministerioaren arabera, 2015ean, ekonomia %16,3 txikitu zen. Grivna txanpona debalutu egin da, eta industria-azpiegiturak eta garraio-azpiegiturak hondamendian daude. Gainera, Donetsk eta Lugansk eskualdeetako gerrak eta lurren galerak, Ukrainak hango baliabide energetikoetan zuen sarbideari eragin diote (bi eskualdeetan ikatz-erreserba handiak

daude).

4.2. HILDAKOAK, ERREFUXIATUAK ETA LEKUALDATUAK

Gutxi gorabehera, 310.000 pertsona dira Sirian hildakoak, eta horien ia erdia (104.000) zibilak dira, Giza Eskubideen Siriako Behatokiaren arabera. Gatazkan zuzenean parte hartu dutenen artean, gutxienez 37.000 dira borrokalari errebelde eta islamistak, Bashar Al Assaden gobernuaren aurka borroka egin dutenak, eta 2.000 soldadu eta ofizial desertore, oposiziokoak. Gerra inperialistak 10.000.000 errefuxiatu inguru eragin ditu, eta horietako 4.000.000k atzerrira egin dute ihes.

Libian, gerra hasi zenetik, 36.000 hildako daude gutxi gorabehera, NBERen datuen arabera. Herrialde barnean lekualdatu direnak 434.000 dira, gutxi gorabehera, eta 500.000 baino gehiago herrialdetik ateratzen saiatu dira.

Estatu Batuek eta Erresuma Batuak Afganistan inbaditu zutenetik, 100.000 hildako kalkulatu dira guztira, eta 2015eko lehen lau hilabeteetan biktima zibilak %16 izan ziren, 979 hildako eta 1.963 zauritu baino gehiago, NBERen arabera. Errefuxiatuak, berriz, 2,59 milioi dira, eta herrialde barnean lekualdatutakoak, 500.000.

Yemenen, Gobernuaren arabera, 5.700 hildako zenbatu dira, 500.000 lekualdatu, eta milioi eta erdi errefuxiatu.

2003tik, Iraken, gatazkak 500.000 hildako baino gehiago eta 2 milioi lekualdatu baino gehiago eragin ditu.

Ukrainan, azkenik, NBEk 8.000 hildako erregistratu ditu, eta horien artean, 2.000 zibilak dira.

Lekualdatuei dagokienez, 1,5 milioi ukrainar mugitu dira herrialde barnean.

4.3. EUROPA ETA ERREFUXIATUAK

ACNUren arabera, munduan gatazkengatiko 51,2 milioi errefuxiatu eta lekualdatu baino gehiago daude. Lehen aldiz II. Mundu Gerrako zifrak gainditu dira.

Egun nazioartean garatzen diren eskala handiko gerren testuinguruak eta errealitateak desberdinak izan arren, izendatzaile bera dute denek: Europar Batasunaren eta Estatu Batuen gogo sutsua petrolio, baliabide energetikoak eta esku hartutako herrialdeen kokapen estrategikoak bilatzeko.

ACNUren arabera, 2015eko abuztura arte, 380.000 migratzaile eta errefuxiatu baino gehiago iritsi ziren Europara Mediterranea gurutzatuta: II. Mundu Gerratik, errefuxiatu krisirik handiena. 2014an Europara iritsi ziren errefuxiatu guztietatik 258.000 Greziara joan ziren, 121.000 Italiara, eta 2.000 Espainiara.

NATOk Afganistanen egin zuen inbasioak ondorio larriak izan zituen afganiarrentzat. ACNUren arabera, 2014an Europara iritsi ziren errefuxiatu afganiar kopurua %65 igo zen, horietatik 50.000 dokumenturik gabe. Gainera, Afganistan izan zen munduan haur emigrante gehien zituen herrialdea. Asiloa eskatu zuten eta bidelagunik ez zuten 34.000 adingabeketatik 8.600 afganiarrak ziren.

ACNUren 2014ko lekualdatze behartuei buruzko txostenean adierazitakoari jarraiki, Europan Irakeko 132.000 errefuxiatu daude. Ikerketa zehatzagoa eginez gero, zifra horiek


bikoiztu egin zitezkeen, ziurrenik. 2014ko abuztuan, ACNURek Turkiara iritsi ziren 2.500 irakiar baino gehiagoren artean profil bat eratzeke lan bati ekin zion. Elkarrizketatutakoen ia erdiak Estatu Islamikoaren erasoetatik ihes egin zuela adierazi zuen, eta %20ak talde horren beraren erasoei beldur zelako egin zuela ihes. Beste %20ak, berriz, biolentzia sektariorik ospa egiteko. Elkarrizketatutakoen ia erdia familia kurduak ziren, eta %33 arabiarrak.

Libian, 430.000 lekualdatu baino gehiago daude. Milioi erdiak baino gehiagok Europara emigratu nahi du. Hauek dira Europan eta inguruko herrialdeetan banatuta dauden errefuxiatu libiarrak: 2.300 (2012); 4.300 (2013); 5.200 (2014); eta 3.300 (2015). Libiatik Italiara eta Europako beste herrialdeetara Mediterraneotik ateratzen diren barkuak, libiarrez gain,

Mendebaldeak eragindako gatazketan murgilduta dauden Afrikako beste herrialde batzuetako pertsonez beteta joaten dira. Gehienek Saharaz hegoaldeko Afrikatik ihes egin ohi dute, eta Libiaraino lekualdatzen dira, Agadez (Niger), Tamanrasset (Algeria) et Jartum (Sudan) gisako migrazio-lotune handietatik zehar.

ACNURen arabera, 2015ean Mediterraneoan 300.000 pertsonak gurutzatu dute Europara. Entitateak bidean gelditu diren 2.500 hildako baino gehiago zenbatu ditu 2015ean zehar.

Siriari dagokionez, errefuxiatuen eta lekualdatuen zifra ezin da tragikoagoa izan: 4.000.000 eta 7.500.000 hurrenez hurren. 2015ean, Greziak soilik (bereziki, Kos eta Lesbos irletan) 124.000 errefuxiatu baino



gehiago jaso ditu, Estatu Batuek eta NATOK eragindako gerrak gehien kolpatutako hiru herrialdeetakoak, gehienak: Siria, Afganistan eta Irak. Grezian, Siriako errefuxiatu kopurua guztizkoaren %69 da, %20 afganiarrak, eta %3 irakiarrak.

Yemeni dagokionez, Europan eragin gutxiago izan arren, ACNURek adierazi du 250.000 errefuxiatu yemendar daudela, 1,2 milioi lekualdatu, eta 15,2 milioik ez dutela oinarritzko osasun arretarik.

4.4. GENERO-INDARKERIA: JATORRIZKO HERRIALDEA, PASABIDEKO HERRIALDEA ETA HELMUGA

Libia, Europar Batasunaren ustez pertsona migratzaileentzat segurua den herrialde hori, luzaroan izan da giza eskubideen defentsarako erakundeen eta nazioarteko zenbait organismoen jomuga. Migrazioetarako Nazioarteko Erakundeak berriki salatu du herrialde horretan esklabo-merkatu bat dagoela. Emakumeak eta gizonak 200-500 dolarren truke saltzen dira. Irudikatu dezakegu zein den emakume eta nesken patua.

Nazio Batuen txosten baten arabera, 5 emakume errefuxiatu edo lekualdatutik 1ek, gutxienez, sexu indarkeria jasan du. Bestalde, amen heriotzen %60 saihestu ahalko lirateke, emakume horiek zerbitzu egokiak dituzten arreta-eremuetan egongo balira migratze-prozesuko ibilbidean zehar.

Mugarik Gabeko Medikuek erakundeak nabarmentzen du egunero 800 emakume hiltzen direla haurdunaldian eta erditzean izandako konplikazioen ondorioz. Baina zifra hori, azpimarratzen du erakundeak, "alderdi bat

besterik ez da, aintzat hartu behar baitira amak haurrari GIB kutsatzea, fistula obstetrikoak, sexu indarkeria edo emakumeen bizitza arriskuan jartzen duten abortu arriskutsuak bezalako arazoak".

Azken finean, indarkeria jasaten dute bai jatorrizko herrialdeetan (bortxaketa gerra-arma gisa, genitalen mutilazioa, ohorearen aurkako krimenak, ezkontza behartua...), bai pasabideko herrialdeetan (bortxaketak, salerosketaren biktimak harrapatzea, batez ere emakume eta nesken artean) eta baita harrera-herrialdeetan ere (bortxaketak, emakumeentzako egokiak ez diren arau eta instalazioak).

4.5. ZER SUPOSATZEN DUTE GERRA INPERIALISTEK NATOKO HERRIALDEENTZAT?

Gerra horiek potentzia handien interes geoestrategiko, geopolitiko eta ekonomikoen menpe daude eta ordenamendu politiko eta banaketa kolonial berri bat lortzea dute helburu. Dena dela, gerra horien sustatzaile nagusiek ere jasan dituzte ondorioak, nahiz eta hildakoen kopurua ez dagoen zehaztua.

Sirian, Estatu Batuetako Estatu Nagusiaren kalkuluen arabera, mertzenarioak entrenatzeak eta babesteak 500 milioi dolarreko gastua dakar urtero. NATOren operazioei dagokionez, finantzaketaren %20 Europar Batasuneko estatuk kideek jartzen dute, eta ekarpen handiena AEBek eta Kanadak egiten dute.

Libiako operaziorako, Estatu Batuetako Gobernuaren gastu militar ofiziala, Pentagonoaren arabera, 1.100 milioi dolarrekoa izan zen, armadari eskainitako osasun-laguntza edo operazioak finantzatzeko eskatutako maileguak

bezalako gastu “ezkutuak” kontuan hartu gabe.

Afganistango gerra, bestalde, Estatu Batuen historian gehien iraun duen gatazka militarra da, bilioi bat dolar inguruko kostua izan du eta oraindik ere ehunka milioi gehiagoko gastua eragingo du, Financial Times agentziaren kalkuluen arabera. Irakeko gerra bi bilioi dolar inguru kostatu zaie AEBei, koalizioak Yemenen egindako esku-hartzea babesteko gastatutako zifrak kontuan hartu gabe.

Ukraina, aldiz, aukera paregabea bihurtu da Estatu Batuen inperioak dirua irabazteko. Haien helburu politiko nagusia lortzeaz gain, Errusia inguratzea alegia, industria militarrek haien ekipamendu militar sofistikatuak NATOk herrialdeen aliantza militarren saltzea sustatu dute, esaterako, MEADS misilen defentsa-sistema eta belaunaldi berriko F-35 ehiza-hegazkina. Gatazka luzatu egingo dela dirudi, armen industriako enpresek etekina ateratzen dute eta.

4.6. PESCO ETA GASTU MILITARRAREN IGOERA EUROPAR BATASUNEAN

Europar Batasunaren apustu militar hori lortzeko lehenengo modua estatu kide guztiek haien gastu militarrek areagotzea da. PESCOren (Kooperazio Egituratu Iraunkorraren) arabera «konpromiso komun handizale eta zailenen artean» dagoela «defentsarako aurrekontuen igoera mailakatua, adostutako helburuak lortzeko». NATOren aurrekontua etengabe handitzen ari bada ere, orain Europako Defentsa Funtsa gehituko zaio; izan ere, Europar Batasunak funts horren bidez urtean 1.500 milioi dolar bideratuko ditu teknologia

militarrei eta armamentu-sistema komunak erosteari buruzko ikerketa proiektuak finantzatzera. Aipatutako zifra hasierakoa besterik ez da, eta urteak pasa ahala handituko dela aurreikusten da.

Sektore militarreko gastuak areagotzeaz gain, PESCOren funtsezko akordioen artean «gaitasun berrien garapena eta operazio militarretan elkarrekin parte hartzeko prestakuntza» ere agertzen dira. Gaitasun horiek NATOren exigentzien osagarri dira. Izan ere, 2017ko azaroaren 8an egindako Ipar Atlantikoko Kontseiluan, NATOk aginte-egitura egokitzea erabaki baitzuen, Europan «aliatuei modu azkar eta eraginkorrean errefortzuak bidaltzeko gaitasuna handitzeko».

Horretarako bi aginte berri sortu dira: Atlantikoko Aginte bat, «Europa eta AEBen arteko komunikazio-itsasbideak libre eta seguru» mantentzea duena helburu; eta Mugikortasunerako Aginte bat, «NATOren indar militarrek Europan zehar mugitzeko gaitasuna hobetzeaz» arduratuko dena.

Indar militarrek eta armamentua Europako lurraldeetan zehar ahalik eta azkarren lekualdatu ahal izateko, NATOk idazkari nagusiak azaltzen duenez, beharrezkoa da Europako estatuek «oztopo burokratiko ugari ezabatzea». Gauza asko egin dira 2014az geroztik, baino asko dago egiteko «indar militarrek mugak zeharkatzea erraztuko duten legeria nazionalak erabat aplikatu» daitezen. Stoltenberg-ek gaineratzen du NATOk Europan soldaduak eta armamentuak garraiatzeko behar adina gaitasun behar duela, eta gaitasun hori, hein handi batean, sektore pribatutik datorrela.

Are gehiago, NATOk Europan «azpiegitura zibilak -errepideak, zubiak, trenbideak, aireportuak eta portuak- hobetzea behar du, NATOren exigentzia militarrentzako egokitu daitezen». Beste modu batera esanda, Europako Estatuak beren gain hartu beharko dute egitura zibilak erabilera militarri egokitzeko behar diren lanen kostua. Adibidez, automobilen eta garraiorako ibilgailu komertzial astunen zirkulazioa bermatzeko moduko ezaugarri teknikoak dituen zubi bat, indartu egin beharko da eraso-tankeak pasatzea ahalbidetzeko.

Estrategia horren barruan txertatzen da PESCO, Europako talde menperatzaileen adierazpen berria. Talde horiek Estatu Batuenekin bat ez datozen interesak badituzte ere, NATOren esparruan lerrokatu egiten dira, mundu aldakor baten ondorioz Mendebaldearen funtsezko interesak arriskuak daudenean. Orduan, «errusiar mehatxuaz» hitz egiten digute, haren aurrean «Europa batua» altxa dadin, gastu sozialak murriztu eta etorkinentzako barne-mugak ixten dituen bitartean, gastu militarrek areagotu eta soldaduek eta gerrako tankeek aske zirkulatu dezaten

barne-mugak irekitzen dituen Europa.

4.7. ZER DAKAR GASTU MILITARRAK ETA NATO ETA PESCOKO KIDE IZATEAK EUSKAL HERRIAN?

Espainiako edozein urtetako Gastu Militarra aztertzea zaila da, alde batetik, gastuetan eragina duten aktore asko daudelako eta aktore bakarraren gastua argitaratu ohi delako, Defentsa Ministerioarena, gainerakoak ezkutuan mantenduz. Jardun horren atzean dagoen interesa politikoa da, gizarteari Gastu Militarren zati handiena ezkutatzeko. NATOren irizpideak jarraitzen ditugu, jakiteko Espainiaren diru publikoko Gastu Militarrean parte hartzen duten eta Estatuko Aurrekontu Orokorretan agertzen diren aktore nagusiak honako hauek direla:

- Defentsa Ministerioa: 7.999,623 milioi euro
- Beste Ministerioak. Gainerako 12 ministeriotatik 11. Ezkutuko gastua guztira 3.324,26 milioi eurokoa da.



- Estatuko beste instituzio batzuk (Erregearen Etxea, Gorte Nagusiak, Kontuen Auzitegia, Defentsaren Unibertsitateak). 15,43 milioi euro.
- Beste aurrekontuko partidak (klase pasibo militarrek). 3.585,22 milioi euro.
- Erakunde Autonomo Militarrek. 1.702,02 milioi euro.
- Zor militarra. 17.577,46 milioi euro.

Analisi hori zehatzagoa eta errealagoa da, baina osatu gabea. Espainiako Gastu Militarra zenbatekoa den behar bezala balioesteko, Autonomia Erkidego, Diputazio eta Udalen gastu militarrek gehitu beharko lirateke. Eta hala ere, Gastu Militarra ez zen osoa izango, industria pribatuen gastua gehitu beharko litzateke eta.

Euskal Herriko Gastu Militarri dagokionez, datuen eskasiak eragiten dituen arazo guztiekin ere, EAEko kupoaren eta Nafarroako hitzarmenaren bidez Espainiako Defentsa Ministeriora bideratzen den zati proportzionala soilik kontatuz, 647.169,47 milioi eurokoa izango litzateke azken urtean.

Bestalde, Ipar Euskal Herriari dagokionez, gastu horiei euskaldunek Estatu Frantseseko aurrekontuetara bideratzen duten zati proportzionala gehitu beharko genieke. Datu horiek, ordea, Estatuak bahituta daude gaur egun.

5. NATOren eragina Euskal Herrian

5.1. BARDEAKO TIRO EREMUA

Errege Bardeako tiro eremua Espainiako Armadak eta Atlantikoko Itunak (NATOK) Europan duten aire-tiro eremu bakarra da; haren kokalekua, Bardeak, natura, paisaia eta kulturaren aldetik izugarritzko balioa duen gune natural bat da.

Tiro eremua ezartzea garai frankista gogorren ondorioa da. Akordioa 1951n sinatu zuten, eremu hori kudeatzen duen ezohiko erakundeak, Bardeako Batzordeak, eta Espainiako Gobernuak. Data horretatik aurrera, goi-mailako interesek herritarren borondatea kontuan izatea oztopatu zezaketen.

Urte askotan zehar, eremu hori Estatu Batuetako Armadak ere erabili zuen, alde biko akordioen bitartez. 1991 arte egon ziren Bardean eta Zaragozako Basean, Espainia NATOn sartu zenez, Estatu Batuen babesa ez baitzen beharrezkoa. Geroztik, Ipar Atlantikoko Itunaren Erakundeko edozein Estatuk erabili dezake Eremua, eta erabilerak nabarmen gora egin izan du Golkoko Gerran, Balkanetakoan, Iraken edo Libiako gatazkan egindako bonbardaketen bezperetan.

Gertatu diren dozenaka istripuek Bardeako Tiro Eremua oso arriskutsua dela frogatzen dute. Ezbeharren zerrendan, lurra jo zuten hegazkinak, galdutako bonbak eta entrenamenduko esparrutik kanpo egindako eztandak daude. Horiek dira ezagutzen diren datuak, arlo militarra sekretismoz inguratua badago

ere.

Hala ere, istripu batzuk nahikoa dira instalazio militar horren arriskuaz jabetzeko; esaterako, gertatu zen azkenekoa, 2000. urtekoa, hegazkin bat erori zenean Aragoiko Ejea de los Caballeros hamabost mila biztanleko herritik bi segundotara.

Behin eta berriz hausten dituzte segurtasun arauak, biziguneen gainetik hegan egiteko debekua edo hegaldiak eta ariketak gauez egitea, adibidez. Arrisku horiei zaratak eta bibrazioek eragiten dituzten eragozpenak gehitu behar dizkiegu.

Inoiz ezin izan da bestelako ingurumen-kalterik neurtu, atmosferaren kutsadura, hondakin toxiko eta arriskutsuak, uranio pobretuaren erabilera eta abar. Hermetismo militarrek eta gobernu desberdinek (zentralak, autonomikoak, tokikoak eta tradizionalak) gaiari eman izan dioten garrantzi eskasak gaur egun ezinezko egiten dute Bardeako eremuan probatzen ari diren armamentu motak zein diren zehazki jakitea eta pertsonei edo ingurumenari kalterik egiten dieten frogatzea.

Balkanetako sindromeak susmo horiek indartu zituen inguruko herrietan. Minbizi kasuei buruzko datu ofizialen arabera, Aragoiko Cinco Villas zonaldea (tiro-eremutik hurbilen dagoena) batez bestekotik askoz ere gorago dago.

5.2. GORRAMENDIKO RADARRA

Duela zenbait hamarkada, kokalekua, instalazio osagarriak eta zerbitzu-instalazioak Intzulegiko ordokian eraiki ziren (Nafarroa 1953-1974). Gorramakil mendiko gailurraren siluetan, bi irrati-antena handi, bi kontrol eta komunikazio pantaila izugarri eta Troposcatter Comm System instalazioa nabarmentzen ziren. Teorian, basea Espainiako Aire Armadarekin partekatzen zen, nahiz eta, praktikan, hegaldien eta komunikazioen kontrola soilik Estatu Batuen izan. Gorramendiko estaldura 555 miliako erradioa izatera heltzen zen, Inglaterratik Mallorcako Soller-eraino eta Cadizko Rota baseraino.

Base hori existitzeak kulturen arteko talka handi bat eragin zuen Baztango eguneroko bizitza xumean. Base barruan, bizitza Estatu Batuetako edozein herritakoa bezala zen eta dolarra zen moneta bakarra, baina soldaduak noizbehinka agertzen ziren Elizondon edo beste herrietan. USAFen (AEBetako aireko armadaren) helikopteroak egunero iristen ziren Torrejón de Ardoz edo Zaragozatik, postarekin, eguneko prentsa estatubatuarrekin eta soldaduei haien familiek bidaltzen zizkieten paketeekin.

Gorramendin gelditu ziren hondakinak duela urte batzuk garbitu ziren, baina oraindik Gorramakilen, 1.087 metroko altitudetan, hormigoizko xaflak eta pantaila troposferikoen ainguraketen torloju erraldoiak ikus daitezke.

5.3. BILBOKO PORTUA

Bilboko portua espainiar estatuan 4.000 milioi eurotan balioztatua dagoen merkataritza baten irteera-puntuetako bat da, eta

eta horrek armen salmentaren munduko rankingeko zazpigarren postuan kokatzen du. Behin baino gehiagotan jarri da zalantzan Bilboko portuko agintaritza eredu eta materialak eta armamentuak Saudi Arabiara bidaltzeko duen permisibitatea. Baliabide militar horiek saudi monarkia absolutista Yemenen aurka egiten ari den gerran erabiltzen dira.

Pertsona errefuxiatuen eskubideen defentsarako elkarteak kritikatu du Portuko Agintaritzako presidente Asier Atutxaren «erantzukizun morala» agerian gelditzen dela «merkataritza-filosofia» hori ontzat ematen duenean. Atutxaren arabera, portua «azpiegitura kritiko bat da» eta aurreikusita dagoen horma ez da «immigrazio kontuengatik» eraikiko, «salgaien eta bidaiarien segurtasuna bermatzeko» baizik, nahiz eta Bilboko Portuan «mota guztietako salgaiak» daudela adierazi duen. 2017an lehergailuz betetako 300 kontainer baino gehiago bidali ziren Bilboko portutik. Bidalketa horietako batean, Ignacio Robles suhiltzaile bizkaitarrak zigorra jaso zuen desobedientzia ekintza bat egiteagatik, Saudi Arabiarako 26 kontainer lehergailu zituen karga bat kontrolatzeko lanetan parte hartzeari uko egin ziolako.

5.4. INSTITUZIOAK, ENPRESAK, BANKUAK ETA UNIBERTSITATEAK

Askotariko auziak eta inplikazioak azpimarratu ditugu orain arte, milaka kilometrotara lehertzen ikusten ditugun eta hainbeste kezkatzen eta eskandalizatzen gaituzten gatazka armatu horiek, uste baino gehiago, gure gerrak ere badirela adierazten dutenak. Gatazka horietan erabiltzen den armamentua enpresa euskaldunek saltzen dute; alderdi euskaldunak buru

dituzten instituzioek, zergadun euskaldunen ekarpenekin, diruz lagundutako enpresa eta produkzio militarrek; irakasle eta ikasle euskaldunek irakasten eta ikasten duten unibertsitate edo heziketa zentroetan ikertu eta garatzen dira, langile euskaldunek fabrikatzen dituzte eta, gainera, lan karga handiagoa aldarrikatzen dutenean, euskal herritarren zati handi batek babesten dituen zentral sindikalen laguntza izaten dute... Eta hori gutxi balitz, euskal herritarren zati hori, askotan, gerren aurka mobilizatzen den bera da.

5.4.1. Instituzio konplizeak

Instituzioak dira armen industriaren esportazioak eta salmenta debekatuak gehien sustatzen dituztenak. Enpresa militarrentzako mar txan jarri zen «krisiaren aurkako» hirugarren mekanismoa honako hau izan zen: made in Spain edo made in Basque Country armamentuen esportazioa babesteko mekanismo instituzional guztiak indartzea.

Lehenengo, Estatu mailako bultzadarekin. Argi hitz egin zuen lehenetariko bat orduko Estatuko Defentsa Idazkaria, Constantino Méndez (PSOE, 2008-2011), izan zen, «Defentsa Ministeriotik sektoreko industria espainiarren esportazioa babesteko plan bat lantzen ari zirela» adierazi zuenean. Méndez berak esan zuenez: «Ez dugu nahi beste herrialdeetako enpresak gugana etortzea soilik, lortu nahi duguna gure industriarentzat interesgarri diren jardueretarako nitxo eta aukerak hautematea da. (...) Nazio mailako eskaria ez da nahikoa gure industriaren gaitasun produktiboa xurgatzeko; atzerriko merkatuetara zabaltzeari esker, diru publikoarekiko duen menpekotasuna gutxituko da». Industriari eskainitako

babes publikoa ez zetorren Defentsa Ministeriotik soilik, baita Industria eta Ekonomia eta Ogasun ministerioetatik eta kantzilertzetaik ere.

Estatuak esportazioak babesteko dinamika hori permisibitatearen mugara iristen da, ez ikusiarena eginez edo zuzenean parte hartuz, baita legez kanpoko esportazioekin ere. Esaterako, Getxoko Morenés Defentsa ministroak (PP, 2011-2016), biztanleria zapaltzeko edo giza eskubideak urratzeko erabili dezaketen herrialdeei armak saltzea legez debekatua badago ere, ez zuen arazorik izan publikoki adierazteko espainiar estatuak herrialde horiei armak saldu diezazkiekeela, «politikan ezer ez delako perfektua».

Industriei eta haien esportazioei mesede egiten dieten neurrien artean, 2014an onartutako Europako Armen Agentziari Europar Batasunak eman zion bultzada dago. Lehenengo aldiz, enpresa militarrek egiturazko funtsen diru-laguntzak lortu ahal izango dituzte, zehazki Horizon 2014-2020 programen bidez. Programa horiei 80.000 milioi euro esleitu zai-zkie hiru arlotara bideratzeko: tripulatu gabeko hegazkinak, ziberdefentsa eta sateliteak.

Instituzio publikoek eta agintari nagusiek ez ikusiarena egiteak eta parte hartzeak, laguntza, erreskatea edo onarpen soziala emateaz gain, beste auzi eskandalagarri zein lizun bat barne hartzen du: instituzio horietako batzuek arma-enpresentzako egiten duten «saltzaile» lana, Espainiako estatuburuarengandik hasita. Aurrekoak egindako «zerbitzuetako» bat, hain zuzen, kontratu berriak lortzeko bidai bat antolatzea izan zen. Horregatik aukeratu zuen Persiar Golkoa eta horregatik joan zen gaia

menderatzen duten ministroekin (Defentsa eta Industriakoekin) eta dozenaka enpresari-ekin batera.

5.4.2. Euskal Industria Militarra

Euskal Herriak, zoritxarrez, ehun enpresa baino gehiago ditu industria militarra bideratzen dutenak haien produkzioaren zati bat edo produkzio osoa. Nor bere produkzio militarreko azpisektorean, horietako batzuk estatu mailako lehen postuetan kokatzen dira. Horietako askok, gainera, diru-laguntzak edota laguntza politikoa jasotzen dute euskal Administrazioaren partetik.

Errudun handiei buruz hitz egiteko garaia heldu da, haien negozioak ondo joatea, hein handi batean, gerrak eta gatazka armatuak lehertzearen (edo mehatxu horren) baitan baitago. Negozio makabro horren erantzule nagusiak diren euskal enpresa garrantzitsuenak honako hauek dira: Gamesa/Aernnova, Sener militarra, ITP eta SAPA, beste askoren artean.

5.4.3. Bankuak

Euskal gizarteak armen fabrikazioan dituen inplikazioei buruzko lan hau ezin dugu bukatutzat eman Banca Armadaren kontua aipatu gabe; alegia, industria militarrean inbertitzen duten edo industria hori finantzatzen duten bankuei eta finantza-erakundeei buruz hitz egin gabe. Ziurrenik, armen produkzioetik eta salmentatik etekin gehien ateratzen dituztenak dira, normalean, inolako kostu sozialik ordaindu beharrik gabe.

Gaur egungoa bezain finantza-mundu «deslokalizatuan», euskal gizartearen inplikazioari

dagokionez, arreta ez dugu jartzen gerren negozioekin aberasten diren «euskal bankuen» existentzian, armen fabrikazioan inbertitzen duten eta gerrak negozio bihurtzen dituzten banku edo finantza-erakundeetan (euskaldunak izan ala ez) aurrezkiak jartzen dituzten euskal herritarretan baizik.

5.4.4. Euskal unibertsitate publikoak eta NATO

EHUK industria militarrekin eta militarismoarekin duen lankidetzak konplizitate maila, benetan, EHUKo erabaki-organoek ezarritako politika baten ondorio da. EHUKo Gobernu Kontseiluak (erabakiak hartzeko organo gorenak) onartuta dauka *EHUren parte-hartzea Espainiako Plataforma Teknologiko Aeroespazialean. Politika berri horren baitan, arlo aeroespazialean esperientzia duten Unibertsitate eta Ikerketa Zentroen parte-hartzea lortu nahi da, besteak beste, EHUrena, Bilboko Ingeniaritza Eskolak Gela Aeronautikoaren bidez izandako esperientzia kontuan izanik. Plataforma hori Espainiako sektorearen erreferentziazko organo bihurtzeko helburuarekin sortu zen, arlo aeroespazialeko behar eta estrategiei, zibil eta defentsa eta segurtasunekoei, dagokienez.*



Baina Plataforma Aeroespaziala benetan zein eremutan mugitzen den ikusteko, osatzen duten bazkideei erreparatu besterik ez dugu egin behar. Bederatzi bazkideen artean pista ematen diguten hiru topatzen ditugu: INTA, TEDAE eta DGAM. Izan ere, INTA Defentsa Ministerioaren I+G+b-rako Erakunde Autonomoa da, TEDAE Espainiako sektore armamentistaren patronala da eta DGAM, aldiz, Defentsa Ministerioako Armamentu eta Materialen Zuzendaritza Nagusia.

Ikerketa programa militarretan laguntzea eta parte hartzea ez da, zoritxarrez, EHUK industria militarra eta militarismoa babesteko erabiltzen duen modu aktibo bakarra. Hala, eta dagoeneko *tradizio* lotsagarri bat bihurtu denarekin jarraituz (urteak baitaramate egiten), 2016ko azaroaren 14ko BOEan, Defentsa Ministerioari dagokion *Bestelako Xedapenak* sekzioan, *bakea, segurtasuna eta defentsari buruzko jardunaldi batzuk antolatu eta garatzeko Euskal Herriko Unibertsitatearekin egindako lankidetza hitzarmena argitaratzen duen* ebazpena topatzen dugu. Hitzarmena Leioako Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatean eta Donostiako Zuzenbide Fakultatean egingo ziren bi jardunaldi aurreikusten zituen.

Baina EHUn kolaborazionismo militaristaren eremuan lotsagabekeria akademikoaren maila guztiak gainditzen dituztenak, 2017ko irailak 4 eta 5ean, Miramar Jauregian, La seguridad y defensa en Europa izenburupean egin ziren Udako Ikastaroetako jardunaldiak dira. Deskribapen xeheago batean, honako helburu hau zehazten du: «*Ikastaroan zehar NATOren posizioa eta Europako Kontseiluak segurtasunaren eta defentsaren inguruan emandako aginduen garapena aztertuko dira.*»

Bestalde, Nafarroako Unibertsitate Publikoan, gaur egun Ramón Gonzalo da Ingeniaritza Elektriko eta Elektronikoko Saileko zuzendaria. Haren ikerketa nabarmenenen artean, Hispasat sateliteen antenatarako diseinuak, aireportuetarako irudi-kamera berriak, aplikazio domotikoak eta irudi medikoetarako kamerak daude. Europako Metamaterialen Institutu Birtualeko Zuzendaritza Batzordeko kide da eta Defentsa Ministerioaren Espainiako ordezkaria da NATOren ikerketa eta teknologiariburuzko hainbat SET (Sensor & Electronic Technology) paneletan.

Ezin dugu ahaztu, unibertsitate publikoak ez badira ere, Nafarroako Unibertsitateak eta Mondragon Unibertsitateak ere parte hartzen dutela armen industrian, eta baita Espainiako Defentsa Ministerioaren erakunde eta plataformen egitura desberdinetan ere.

6. NATOren aurkako mugimenduak

NATOren aurkako mugimendu sozial batez hitz egitean, gerren eta militarismoaren aurkako mugimendu bati buruz ari gara, hori baita Estatu inperialistek eta haien armadek egindako erasoen aurka mobilizatzearen eta arbuioa adieraztearen funtsa.

Jaio zenetik, erakunde honen aurkako manifestazio eta protesta ugari egin dira, bereziki base militarrek instalatzean eta gerran dauden herrialdeetan, Afganistanen adibidez, izaera «humanitarioko» maniobra interbentzionistak egitean.

Ikuspegi teorikotik, 1960ko hamarkadatik aurrera soilik hasi ziren mugimendu sozial berriak sendotzen (feminismoa, ekologismoa, antimilitarismoa, eta abar). Hala ere, errepaso kronologiko bat eginez gero, 1949ko martxoaren 30ean, Islandian (Ipar Atlantikoko Ituna sinatu baino bost egun lehenago), aliantza militarren aurkako lehenengo protestetariko bat egin zen, bertako parlamentuak herrialdea Estatu kide bat bilakatzea erabaki zuenean.

6.1. JUGOSLAVIA

Erasoak, gizartearen zati batek ere gerrako krimenez hartu zuenak, mundu mailako mobilizazio sorta bat abiarazi zuen, nagusiki Europan, baina baita Txina, Japonia, Australia, Zeelanda Berria edo AEB bezalako herrialdeetan ere.

Hego Euskal Herrian astero elkarretaratzeak egiteari ekin zioten, hiriburu desberdinetan,

gerrak irauten zuen bitartean eta protesta egiteko hainbat manifestazio ere antolatu ziren. Sofian (Bulgarian) 20.000 pertsona inguru elkartu ziren NATOren bonbardaketak gelditzea eskatzeko, eta Londonen «Stop NATO bombing of Yugoslavia» lelopeko martxa batek 10.000 manifestari bildu zituen.

6.2. AFGANISTAN ETA LIBIA

Hainbat ikerketa eta inkestek, Pew Global Attitudes Survey edo Daily Telegraphek argitaratutakoek adibidez, NATOko kide ziren herrialdeetako biztanleria Afganistanetik tropak kentzearen alde zegoela adierazten bazuten ere, mobilizazio sozialak apenas izan zuen garrantzirik. Irakeko gerraren aurkako mugimendu sozialaren nekea edo misioen helburuei buruzko mobilizazioa izan daitezke kausetako batzuk.

Talde integristen indarkeria-bolada zela eta, Muammar Gaddafi presidentea bere postutik kentzeko helburuarekin 2011an Libian egin zen esku-hartzeak ere zalaparta handia sortu zuen herritarren, mugimendu sozialen eta nazioarteko hainbat gobernuen artean. Sektorre kritikoek erasoaren eta gizarte zibilaren erailketen arrazoi nagusiak interes ekonomikoak eta herrialdeko baliabideen (urra eta petrolioaren) ustiaketa zirela esaten bazuten ere, beste batzuek, eragile progresistak eta ezkerrekoak tartean, Aliantzaren jarduna defendatzen zuten, muturreko islamismoari, Al-Qaeda edo Estatu Islamikoari bidea irekiz Libiako lurralde osoan.

6.3. NATOREN AURKAKO MUGIMENDUA: SARDIGNA, ESPAINIAR ESTATUA...

NATOren aurkako mugimenduaren irakurketa orokor bat eginez, hasieran aipatu bezala, esan dezakegu mugimendu antimilitaristan eta, hein batean, bakezalean oinarritzen dela eta momentu puntualetan edo helburu zehatzekin agertzen dela gehienbat (Atlantikoko Itunaren parte-hartzearekin egiten diren gerra eta erasoen aurkako mobilizazioak, base militarren kontrakoak, nazioarteko goi-bileretan...).

Sardigna uhartean NATOren 16 base instalatu dira, 1972ean sortutako Maddalena izanik arriskutsuenetakoa eta polemika gehien eragin duena. Azkenik, Estatu Batuetako armadak amore eman zuen presioaren ondorioz eta 2008an itxi zuen zentro militarra.

Espainiar Estatuan, esaterako, Cadizko Rota itsasontzi-basera duela 30 urte baino gehiago egiten den martxa dugu. Baita hainbat base militarren presentziaren eta maniobren aurka urteetan zehar egin diren kanpaina eta mobilizazioak ere, batez ere AEBen presentzia handiagoa izan duten tokietan (Rota, Zaragoza, Betera...).

6.4. NATOREN AURKAKO MUGIMENDUA EUSKAL HERRIAN

Hego Euskal Herriaren kasuan (Katalunia eta Kanariekin batera), NATOrekiko arbuioa argi eta garbi islatu zen 1986ko erreferendumean lortutako emaitzetan. Baina ekintza kolektiboko prozesu hauen irakurketa zehatzagoa egin nahi badugu, lehenik eta behin aintzat hartu behar ditugu KEM-MOC, Kontzientzia Eragozpen Mugimendua - Movimiento de

Objeción de Conciencia, eta Intsumisio Mugimendua. Lehena 70eko hamarkadan sortu zen eta, derrigorrezko soldadutzaren aurrean, ordezkotza zerbitzu soziala egiteko eskubidea aldarrikatzen zuen. Nahiz eta, hasiera batean, batik bat pertsona erlijiosoak batzen ziren, urteak pasa ahala kideen profila eraldatzen joan zen, kutsu antimilitarista hartu arte. Geroago, 80ko hamarkadaren erdialdetik aurrera, azkenean intsumisioa gailendu zen protesta eta desobedientzia ekintza gisa.

NATOren aurkako esparru konkretuago batean, Bardeako Tiro Eremuaren aurkako ekintza eta mobilizazioak nabarmendu behar ditugu. 1979ko ekainaren 3an Tuteran Lurraren Eguna antolatu zen, batez ere Lemoizko zentral nuklearra geldiaraztea eta Tiro Eremua ixtea aldarrikatzeko. Egunaren erdialdean poliziak bortizki kargatu zuen eta manifestariek Ebro ibaia gurutzatzen duten zubietako batean eserialdi bat eginez erantzun zuten. Protesta sakabanatzeko Segurtasun Indarren saiakera, Gladys del Estal ekintzaile ekologistaren erailketarekin amaitu zen, José Martínez Sala Guardia Zibilak garondoan tiro egin ondoren. Hiltzaileak hemezortzi hilabete soilik egin zituen kartzelan.

Urteak igaro ondoren, 1987an, Asambleak Antipolígono taldeak Tiro Eremuaren aurkako martxa antolatzeari ekin zion berriz, eta dagoeneko 30 edizio egin dira. Gainera, Bardenas Libres 2018 plataformak etengabe antolatzen ditu jarduerak, aldizkako asanbladak eta protesta ekintza desberdinak, eta helburu gisa tiro eremua ixteari buruzko herri-galdeketa bat egitea ezarri du.

6.5. GERRA INPERIALISTEN ETA NATOREN AURKAKO MUGIMENDU FEMINISTA

Gerraren aurkako emakumeen protesta nabarmenetariko bat 1981eko irailaren 5ean Ingalaterrako Royal Air Force-aren Greenham Common basean egindako kanpaldia izan zen. Galeseko emakume talde batek martxa bat abiatu zuen Cardiff-etik (Gales) Newbury-eraino, Gobernuak gurutzaldi-misilak, alegia, lehergaiekin edo buru nuklearrekin kargatutako tripulatu gabeko hegazkinak, erabiltzeko erabakia hartu izana salatzen. Kanpamendua 20 urtetan zehar mantendu zen. Misilak 1989. urtean instalatu ziren, baina 1992an Estatu Batuetako aire-armadak, Gerra Hotzean zehar bazea erabili ondoren, kokalekua utzi egin zuen. 1997an Greenham Common parke publiko bihurtzeko erabakia onartu zen, eta 2001ean azkenik kanpamendua kendu zen.

Aipatu beharreko beste mugimendu bat «Beltzezko Emakumeak» izenekoa da. 1988an sortu zen Hagar Rublev ekintzailearen ekimenez, Palestinaren okupazioaren aurka egiteko. Mugimendua hedatzen joan zen, Golkoko, Balkanetako edo Afganistango Gerren aurkako protestetan zehar, nazioarteko kutsu feministabakezalea izan arte.

Euskal Herri mailan, 1980ko hamarkadan zehar, Espainiar Estatua NATO-n sartu zenean eta soldadutzaren aurkako protestak pil-pilean zeudenean, mugimendu feministak aktiboki parte hartu zuen mobilizazioetan eta manifestazio propioak antolatu zituen, batez ere ia astero mobilizazioak egiten ziren kapitaletan, eta berriki martxa feminista eta antimilitarista bat egin da Santurtzin (Bizkaian), 2018an.

7. Ondorioak eta lan-ildoak

Hori guztia aztertu ostean, NATO inoiz baino biziago dagoela esatea besterik ez zaigu geratzen. Erdigune inperialistak herrialde periferikoetan dituen interesari eusteko sortu zen inperialismoaren tresna hori, eta hala jarraitzen du izaten, balaztari eman gabe. Ez da zalantzarik, Berlingo harresia erori zenetik, beste ofentsiba bati ekin zitzaion, eta azken urte guzti hauetako gertaerek argi utzi dute ezer ez dela aldatuko.

Buruan izan behar dugu NATOk ez dituela eraginak eraso egiten dien herrialdeetan soilik, Euskal Herrian ere sare ekonomiko, politiko, ideologiko eta militar oso bat duela errotuta. Horregatik, oso garrantzitsua da perspektiba internazionalistatik eta antiinperialistatik honako lan-ildo hauek jorratzea:

Batetik, eraso inperialistak salatzea, eraso egiten zaion herrialdea edozein dela ere, irmotasun beraz. Edozein herrialderen burujabetza da garrantzitsua, maila berean, nahiz eta herrialde horrek kontraesan asko eragin. Horregatik, NATOk egiten duen eraso oro salatuko dugu, gertatzen den lekuan gertatzen dela.

Bestetik, eraso inperialista horiek zuzendutako herrialdeetan uzten dituzten ondorioak salatzea. Bereziki, errefuxiatuen auzia eta haiekiko tratua, bai bidean bai gure herrietan. Europar Batasuna salatu behar dugu, horma ikusezin bat eraiki duelako Mediterraneo osoan zehar, patruilarien eta Turkiarekin sinatutako akordioen bitartez. Are gehiago, onartezinak dira Europa osoan zehar errefuxiatuen zirkulazio askea geldiarazteko sortu diren aire libreko kartzela guztiak.

Ez dugu ahaztu behar Euskal Herriko sare militar guzti hori salatzea: industria militarra, instituzioen, unibertsitateen eta bankuen rola... Garrantzitsua da, baita ere, Bilboko portuak armen banaketarako duen funtzioa salatzea. Horiek guztiak Euskal Herriko sare militarren parte dira, NATOren interesak eta, beraz, mendebaldeko inperialismoaren interesak, bermatzen laguntzen dutenak.

Azkenik, eta ez garrantzi gutxiago duelako, Bardeako tiro-poligonoa desagerrarazteko lan egitea. Burujabetza ezaren adibide argia da poligonoa, izan ere, NATOrentzako funtzio militarra betetzen du, eta Euskal Herriak 1986an argi adierazi zuen NATOrekiko arbuio irmoa. Gogor egin behar dugu lan, poligonoa itxi dezaten. Horregatik, 2018a oso urte garrantzitsua izango da, kontratua berritu nahi baitute erabilera militarreko. Ez diegu utziko! Bardea askea, orain!

Zentzu horretan, erakunde politikoei, sindikalei eta herri eragileei dei egiten diegu, inperialismoaren aurrean, atzera urratsik egin ez dezaten. Gurekin eta mugimendu internazionalista osoarekin batera lan egin dezaten erakunde terrorista eta kriminala ahultzeko, bai mugen baitan bai kanpoan.

8. Bibliografia

- <https://gasteizkoak.org/wp-content/uploads/2017/05/estas-guerras-son-muy-nuestras.pdf>
- https://mundo.sputniknews.com/trend/europa_otan_presencia_2014/
- https://www.youtube.com/watch?v=r-275VObhP_E
- <https://elviajerohistorico.wordpress.com/2017/09/21/base-americana-en-gorramendi/>
- <http://www.argia.eus/albisteak/euskal-herriko-unibertsitatearen-kolaborazioak-industria-militarrarekin-eta-espainiako-defentsa-ministerioarekin>
- <https://www.lahaine.org/mundo.php/nacimiento-de-la-pesco-hija>
- <https://www.cear.es/situacion-actual/>
- https://www.cear.es/wp-content/uploads/2017/11/CEAR_GUIA-DIDACTICA_v6.pdf
- <https://www.telesurtv.net/bloggers/Problemas-de-la-paz-y-la-guerra-en-el-capitalismo-actual-20160309-0006.html>

